1994ko ekainaren 21ean egindako bileran, Ohiko eta Ezohiko Batzar Nagusiak Estatutuetako 37. artikuluaren aldaketa onetsi zuen, Zuzendaritza Batzordeko kideen kopurua elkartekide kopuruaren gehikuntzari egokitzeko xedez. Aldaketa Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan inskribatu zen, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 1995eko martxoaren 8an.

1995eko ekainaren 20an egindako bileran, Ohiko eta Ezohiko Batzar Nagusiak Estatutuetako 12. artikuluaren aldaketa onetsi zuen, Elkartearen elkartekide laguntzailearen irudiaren irismena zabaltzeko asmoz. Aldaketa Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan inskribatu zen, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 1996ko urtarrilaren 12an.

2005eko ekainaren 29an egindako bileran, Ohiko eta Ezohiko Batzar Nagusiak 36. eta 52. artikuluen aldaketa onartu zuen, haien egungo araura egokitzeo ("Erregimen bereziak: Fundazioak, 1/2004 Foru Araua: Oinarrizko Araua, II. Titulua: Irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga erregimen berezia"), baita 7., 8., 28., 37., 43. eta 46. artikuluen aldaketa ere, horiek eguneratzeko eta Elkartearen funtzionamendu egokia bermatzeko. Era berean, 2006ko ekainaren 26an egindako bileran, Ohiko eta Ezohiko Batzar Nagusiak Estatutuetako 16., 28., 29. eta 37. artikuluak erreformatzea erabaki zuen; haistik, aldaketa ez zen izan funtsezkoa eta Elkarteen Erregistroak hala eskatuta egin zen, indarrean dagoen araudira erabat egokitzeko. Aldaketa horiek Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan inskribatu ziren, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ziren 2006ko azaroaren 24an.

2012ko ekainaren 14ko bileran, Ohiko eta Ezohiko Batzar Nagusiak Estatutuetako 3., 7., 8., 9., 11., 12., 13., 14., 20., 21., 23., 24., 25., 37., 38. eta 39. artikuluak aldatzea eta 53., 54., 55., 56., 57., 58., 59. eta 60. artikuluak sortzea onartu zuen, batez ere Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen ekainaren 22ko 7/2007 Legera egokitzeko, eta, era berean, Elkartearen gaur egungo egoerara moldatzeko. Aldaketa horiek Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan inskribatuko dira, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu.

2022ko ekainaren 22ko bileran, Ezohiko Batzar Nagusiak Estatutuen berrikuntza orokorra onartu zuen, Elkartearen gobernu organoengarren dagokienez eta indarrean dagoen araudira egokitzeko (Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen ekainaren 22ko 7/2007 Legea).

## I. KAPITULUA - IZAERA, NORTASUNA, GAITASUNA, IRAUPENA ETA HELBIDEA

**1. artikulua.-** Bilbao Metropolitarra Birbizteko Elkartea sustapen eta ikerketarako elkartea da, eta nortasun juridiko eta ondarezko osoa du.

Izaera horretatik eratorrita egiten dituen ekintzak eta dagozkion eskubideak indarrean dauden arauetan ezartzen denarekin bat gauzatuko dira.

**2. artikulua.-** Elkarteak gaitasun juridiko osoa izango du edozein motatako ondasunak eskuratu, betterendu eta edukitzeko.

Bere helburuak hobeto bete ahal izateko, nazio edo nazioarte mailako beste erakunde batzuekin federatu, elkartu edo fusionatu ahal izango da, baita haietan parte hartu ere.

**3. artikulua.-** 1992ko ekainaren 9an, Eusko Jaurlaritzak Herri Onurako Erakunde izendatu zuen Bilbao Metropolitarra Birbizteko Elkartea.

**4. artikulua.-** Elkarte mugarrak gabeko iraupenaz eratu da, eta dagokion Erregistro Publikoan inskribatutako momentuan eman zien hasiera bere eragiketei.

**5. artikulua.-** Elkarteak Bilboko (Bizkaia) Kale Nagusian (45. zenbakia) du egoitza.

Elkartearen webgunea [www.bm30.eus](http://www.bm30.eus) da.

Elkartekideek helbide elektroniko bat eman beharko diote Elkarteari, bitarteko elektronikoen bidez bideratu ahal izateko Elkartearen eta elkartekideen arteko komunikazioa – dokumentuen eta informazioaren igorpena barne–, helbide elektroniko horietara idatziz.

Estatutu hauetan ezarritako urrutirako komunikazio sistema lehenetsiko da, baina horrek ez du eragotziko paperezko euskarrien bidezko komunikazioa eta dokumentazioa igortzea.

## II. KAPITULUA - HELBURUEI BURUZKOA

**6. artikulua.-** Bilbao Metropolitarra Birbizteko Elkartearen helburua da Bilbao Metropolitarra suspertzea xede duten sustapen eta ikerketa ekintzak gauzatzea, Bilbao Metropolitar legez ulerturik bereziki Nerbioi Behereko hiri aglomerazioa, baina herrialdeko eta nazioarteko ingurunean proiektatzen den lurralte muga zehaztugabeko errealitate sozial eta ekonomiko batera hedaturik.

Elkarteak nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoan egingo ditu bere jarduerak.

Lehenengo eta behin, Bilbao Metropolitarraren epe luzera begirako ikuspegiari buruzko gogoeta estrategiko iraunkorra sustatzeaz arduratuko da Elkartea.

Bereziki, honako funtziotako hauek beteko ditu:

- Entitate elkartekideen partaidetza koordinatzea, aurreko puntu garatzeari begira.
- Gogoeta estrategikoan identifikatutako helburu eta estrategien jarraipena.
- Arestian adierazitako xedetik eta funtziotatik eratorritakoetatik bere ardurapean jartzen diren ekintzak gauzatzea; bereziki, Bilbao Metropolitarraren barne eta kanpo irudia hobetzea helburu duen guztiari dagokionez.

Bigarrenik, Bilbao Metropolitarraren egoeraren ezagutzan sakontzeko ikerketa proiektuak edo azterlanak eskatu ahal izango ditu Elkarteak, bai eta beren egoera dela-eta irakaspen baliagarriak ateratzeko aukera eman dezaketen beste metropoli batzuei buruzkoak ere.

Hirugarrenik, Elkarteak sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetza sustatuko du, Bilbao Metropolitarrari dagozkion eta bien intereseekoak diren arazoei irtenbide bateratuak emateko. Zehazki, ekimen zehatzetan parte hartu ahal izango du, eta haien arrakasta izan dezaten lagungarri diren eragile publiko eta pribatuek haien bat egin dezaten bultzatu.

Elkartearen jardunak ez die kalterik egingo harten parte hartzen duten administrazio publikoen eskumenei, ez eta elkartean sartzen diren gainerako pertsona juridiko eta fisikoen xede eta helburuei ere.

Elkartearen jarduera dela medio sortutako ondasunak pertsonez osaturiko kolektibitate zehaztugabeek jasoko dituzte, betiere; bereziki, Bilboko metropoli eremuaren kontzeptuan sar litezkeen kolektibitateek eta haren eraginpekoek, Euskadi osoan dihardutenak barne.

**7. artikulua.-** Elkarteak arlo honetan aplikagarri izan daitezkeen indarreko xedapenek diotenaren menpe geratzeko asmo argia adierazi du; bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren eta etorkizunean ezar litezkeenen menpe. Arau horiek zehazten dituzten mugak bete beharko ditu, eta, bereziki, 1992ko ekainaren 9an Eusko Jaurlaritzak Herri Onurako Erakunde izendatu izanetik berariaz eratorritako arauak.

### III. KAPITULUA - ELKARTEKIDE ETA BALIABIDEEI BURUZKOA

**8. artikulua.-** Elkartekideak izan daitezke Ohorezkoak, Sortzaileak, Arruntak edo Laguntzaileak.

Pertsona fisikoei dagokienez, nahitaezko baldintza da adinez nagusia edo emantzipatutako adingabea izatea, eta ez egotea elkartzeko eskubidea gauzatzeko legezko inongo debekuren menpe. Pertsona juridikoek organo eskumendunak sinatutako erabaki baliodunaren kopia eman beharko dute, eta elkartzeko borondatea adierazi bertan, baita beren izenean jardungo dutenak izendatu ere.

**9. artikulua.-** Ohorezko elkartekide izango dira Elkarteari emaniko zerbitzu edo ekarpen garrantzitsuak egiteagatik edo Bilbao Metropolitarraren aurrerapenean duten merituengatik Zuzendaritza Batzordeak proposatuta Batzar Nagusiak halaxe izendatutako pertsona fisiko edo juridikoak.

Ohorezko elkartekideak salbuetsita daude kuotak, ordainparteak eta Elkardea mantentzeko ezartzen diren bestelako ekarpenak ordaintzetik.

**10. artikulua.-** Elkartekide sortzaileak dira Elkartearen xedeekin era aktiboan bat eginik Elkartearen sorreran edo jaiotzan zuzenean parte hartu zuten pertsona fisiko edo juridikoak.

Elkartekide horiek behartuta daude ohiko nahiz ezohiko kuotak, ordainparteak eta elkardea mantentzeko ezartzen diren bestelako ekarpenak ordaintzera.

**11. artikulua.-** Elkartekide arruntak dira Elkartearen xedeekin era aktiboan bat eginik Zuzendaritza Batzordeak halakotzat izendatzen dituenak. Horretarako, Zuzendaritza Batzordeari aldez aurretik eskaria egin beharko diote, eta hark eskatzen dizkien baldintzak bete.

Elkartekide hori behartuta daude ohiko nahiz ezohiko kuotak, ordainparteak eta elkardea mantentzeko ezartzen diren bestelako ekarpenak ordaintzera.

**12. artikulua.-** Elkartekide laguntzaileak dira Elkartearen xedeekin bat eginik eta inolako ekarpen ekonomikorik egin gabe Bilbao Metropolitarraren barruko eta kanpoko irudia hobetzen edo Elkartearen beste edozein helburutan borondatezko jarduera egonkorrik egiten dituztenak edo etengabe eta/edo modu iraunkorrean laguntzen dutenak.

Zuzendaritza Batzordeari dagokio elkartekide lagunzaileak izendatzea, haien aldez aurretik Batzordeari eskaria eginda eta hark eskatzen dizkien baldintzak beteta.

**13. artikulua.-** Elkartekide lagunzaileek Batzar Nagusietara joateko ahalmena izango dute, Batzar Nagusietan hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez bota ematekoa.

**14. artikulua.-** Elkartekide sortzaileek, ohorezko elkartekideek eta elkartekide arruntek elkartearren gobernu organoetan parte hartzeko eskubide politiko osoak dituzte, betiere, estatutu hauetan ezartzen denari lotuta.

Elkartekide sortzaileak eta elkartekide arruntak behartuta daude gobernu organoetan eta Elkartearren jardueretan parte hartzen, Zuzendaritza Batzordeak finkatutako irizpideen eta arauen arabera. Ohorezko elkartekideak betebehar horretatik salbuetsita daude.

Gainerakoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 26 eta 27. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

**15. artikulua.-** Elkartekideek, edozein motatakoak direla ere, arrazoi hauek direla medio utziko dute Elkartea:

- a).- Norbere borondatez; betiere, Zuzendaritza Batzordeari idatziz jakinarazita.
- b).- Heriotza edo Elkartea desegitea.
- c).- Kanporatzea, Estatutuek ezarritako larriki urratzearen ondorioz, Zuzendaritza Batzordeak proposatu eta Batzar Nagusiak hala erabakiz gero.
- d).- Elkartearren jarduerei eta xedeei ez laguntea, Zuzendaritza Batzordeak hala ebatziz gero; eta, bereziki, elkarteko kuotak ez ordaintzea.

**16. artikulua.-** Bere helburuak bete ahal izateko, Elkartekideen lana izango du oinarri nagusi. Ez du, beraz, hasierako sorrera ondasunik behar, eta ondasun horren zenbatekoa zero izango da, hortaz.

Honako baliabide material hauek izango ditu:

- a).- Elkartekideen kuotak.
- b).- Izaera publiko eta pribatuko diru-laguntzak eta laguntzak.
- c).- Dohaintzak, oinordekotzak edo legatuak.
- d).- Edozein eskubide erreala edo pertsonal dela tarteko Elkartearren titulartasuna edo gozamena duen edozein ondasun, hala higigarriak nola higiezinak.
- e).- Elkartearren beraren ondasunen emaitzak, errentak edo interesak.

- f).- Egiten dituen argitalpenak edo antolatzen dituen ikastaroak direla medio lor ditzakeen diru-sarrerak.
- g).- Elkartearen alde jasotako beste edozein diru-sarrera bidezko eta legez baliozko.

**17. artikulua.-** Elkartearen ekitaldiei dagokienez, Estatutu hauetako V. kapituluan xedatutakoa hartuko da aintzat.

#### **IV. KAPITULUA.- ORGANOEI BURUZ**

**18. artikulua.-** Elkartearen gobernu organoak dira:

- a).- Batzar Nagusia
- b).- Zuzendaritza Batzordea

#### **BATZAR NAGUSIARI BURUZ**

**19. artikulua.-** Batzar Nagusia Elkartearen eztabaida eta erabaki organo gorena da, eta haren erabakiek arteztuko dute Elkartearen bizitza.

**20. artikulua.-** Batzar Nagusia elkartekide guztiekin osatzen dute.

Elkartekide sortzaileek eta arruntek hitz egiteko eta botoa emateko ahalmena dute. Pertsonalki parte hartu ahal izango dute Batzarrean, baita beren ordezkaritza beste elkartekide batzuen esku utzita ere; ordezkaritza emateko, bilera bakoitzerako gutun bat idatzi beharko diote Lehendakariari, eta elkartekide bakar batek ezingo du bere gain hartu beste lau elkartekide baino gehiagoren ordezkaritza. 36 c) artikuluak xedatutakoaren arabera, presidenteari dagokio Batzar Nagusiaren buru izatea, baina Batzar Nagusiak legezko ahalmena dauka botoen gehiengoaz erabakitzeko kasu bakoitzean buru izatea nori dagokion.

**21. artikulua.-** Batzar Nagusiak bilera egingo du:

- a).- Ohiko izaera, urtean behin, ekitaldi bakoitzeko lehen seihiilekoan.
- b).- Ezohiko izaera, Zuzendaritza Batzordeak egoki deritzonean, edo elkartekide guztien gutxienez ehuneko hogei ordezkatzen duten adina elkartekidek halaxe eskatzen duen guztietan.

**22. artikulua.-** Batzar Nagusirako deialdia Elkartearen webgunean eta hark egoitza duen lokaleko jendaurreko leku batean jarritako iragarki bitartez egin beharko da. Bilera baino gutxienez hamabost egun lehenago egin behar da deialdia.

Gainera, elkartekideen kopurua ehunetik beherakoa ez bada, haien xede horretarako adierazitako helbidera bidalitako gutun edo mezu elektroniko baten bidez emango zaie deialdiaren berri.

Deialdian aditzera eman beharko da bileraren gai zerrenda, eta, hala badagokio, elkartekideek kontabilitate agiriak nahiz bileraren xedearekin zerikusia duten bestelako agiriak eskuragarri dituzten leku fisikoa edo helbide elektronikoa.

Batzarretan bideokonferenzia bidez edo urrutiko edozein komunikazio prozedura elektronikoren bidez parte hartza eta boto eskubidea gauzatzea baliozkoa izango da, baldin eta behar bezala bermatzen bada elkartekidearen identitatea ezagutzea; ahalbidetzen bida irudia eta soinua bi norabideetan eta aldi berean komunikatzea eta elkartekidearen eta batzarraren arteko entzumen eta ikusmen interakzioa, eta Elkartearen euskarri informatikoan erregistratuta geratzen bada froga gisa.

Presidenteak Batzordearen deialdiarekin batera iragarriko du, hala dagokionean, bideokonferenzia bidez edo urrutiko komunikazio bidez parte hartzeko modua edo prozedura, bai eta boto eskubidea telematikoki baliatzeko modua ere, unean-unean ezarrita eta operatibo dagoen teknologiaren arabera. Halaber, aurreko paragrafoan Batzarrean urrutitik parte hartzeko eta boto eskubidea telematikoki erabiltzeko ezarritako baldintzak betetzen direla bermatuko du.

Procedura hori erabili nahi duen elkartekideak berariaz jakinarazi beharko dio Elkarteari, aurrez aurre edo sinadura elektroniko aitortu bidez, Batzarra egin baino gutxienez bost egun lehenago, prozeduraren jarraibideak garaiz eta behar bezala jaso ditzan.

Urrutiko komunikazio bidez parte hartzeak ez ditu aldatuko presidenteak Batzarra zuzentzeko dituen ahalmenak.

**23. artikulua.-** Ohiko izaeraz deitutako Batzar Nagusiari dagokio erabaki hauek hartza:

- a).- Elkartearen, Zuzendaritza Batzordearen eta gainerako organoaren, haien kideen eta elkartekideen jardueraren berri izatea, estatuto hauek edo Batzar Nagusiak berak egokitutu dizkieten funtzioei dagokienez.
- b).- Zuzendaritza Batzordeak aurkeztutako Elkartearen Urteko Kontuak eta Aurrekontuak aztertu eta onartzea.
- c).- Elkartekideak kanporatzeko, haiei baja emateko edo Elkartearen behin betiko utzarazteko erabakia hartza.
- d).- Ohorezko Elkartekideen izendapena onartzea, Zuzendaritza Batzordeak hala proposatuta.

- e).- Ohiko edo ezohiko kuotak finkatzea. Hala ere, eskumen hau Zuzendaritza Batzordearen esku utz lezake Batzar Nagusiak, horretarako berariazko erabaki baten bidez.
- f). Barne araudia onartzea, Zuzendaritza Batzordeak proposatuta.
- g).- Estatutuek Batzar Nagusiari egotxitako beste edozein eskumen.

**24. artikulua.- Ezohiko izaeraz deitutako Batzar Nagusiari dagokio erabaki hauek hartzea:**

- a).- Estatutuen aldaketak erabakitzea.
- b).- Presidente, idazkari eta diruzain karguetarako kideak eta, halakorik balego, Zuzendaritza Batzordeko gainerako kideak hautatzea eta kargutik kentzea, bai eta haien lana gainbegiratu eta kontrolatzea ere.
- c).- Elkartearren ondasunak erabili, besterendu edo zergapetzea, Zuzendaritza Batzordearen esku utz litzakeen ahalmenei kalterik egin gabe.
- d).- Helburuak lortzen laguntzeko sozietate edo erakundeen sorrerari edo haietan parte-hartzeari onespena ematea.
- e).- Elkartea desegitea eta haren ondasunekin zer egin erabakitzea.
- f).- Administrazioari eskatzea elkartea Herri Onurako Elkarte izenda dezan eta haren egitura eta helburuekin bat datozen bestelako kalifikazioak eman diezazkion, bai eta onartuak dituenei uko egitea ere.
- g).- Beste elkartea batzuekin federatzea eta konfederatzea, edo elkartea partea hartzen duen federazio eta konfederazioetatik irtetea.
- h).- Zuzendaritza Batzordeak bere kabuz zein elkartekideek 21. artikuluan aurreikusitako moduan hala eskatuta aztertzeko aurkezten duen edozein.
- i).- Legeak Batzarrari egotxitako eta Ohiko Batzarraren eskumenekoak ez diren gainerako gaiak.

**25. artikulua.** Ohiko Batzar Nagusiak estatutu hauetan Ezohiko Batzar Nagusiari esleitzen zaizkion gaiak sartu ahal izango ditu bere gai zerrendetan, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren aurka ez badoa.

Batzar Nagusia, Ohikoa nahiz Ezohikoa, behar bezala eratutzat jotzeko, boto eskubidea duten elkartekideen erdia gehi bat behar dira. Quorum hori betetzen ez bada, bigarren deialdian egin ahal izango du bilkura, gutxienez ordu erdi igarota, edozein dela ere elkartekideen kopurua, bertaratuena nahiz ordezkatuena.

Batzar Nagusiaren erabakiak bertaratutako edo ordezkatutako botoen gehiengoz hartuko dira, eta boto bana izango du bilkuran parte hartzen duen elkartekide sortzaile, arrunt edo ohorezko bakoitzak.

**26. artikulua.-** Aurreko artikuluan adierazitakoa gorabehera, nolanahi ere, Ezohiko Batzar Nagusian elkartekideen edo haien ordezkatutako heren biren aldeko bota beharko da honako erabaki hauek hartzeko: ondasun higiezinak erabili, besterendu edo zergapetzea, Zuzendaritza Batzordeko presidentea izendatzea, onura publikoko eta beste edozein kalifikazio eskatzea, estatutuak aldatzea eta Elkarte desegitea.

#### ZUZENDARITZA BATZORDEARI BURUZ

**27. artikulua.-** Zuzendaritza Batzordea Elkartearen administrazio organoa da. Ekainaren 22ko 7/2022 Legearen 17.3. artikuluaren arabera, elkartekideek baino ezingo dute izan Zuzendaritza Batzordeko kide.

Pertsona juridiko diren elkartekideek pertsona fisiko bat izendatuko dute Elkartearen Zuzendaritza Batzordean beren kargua bete dezan. Bere kargua dela-eta pertsona juridikoa den elkartekide bat ordezkatzen duten pertsona fisikoek Zuzendaritza Batzordeko kide izateari utziko diote entitate elkartekidean zuten kargua uzten dutenean.

Zuzendaritza Batzordeko kideak eta haien beren kargua betetzeko izendatutako pertsona fisikoak Batzordeko presidenteak proposatu eta Batzar Nagusiak izendatuko ditu.

Elkartekide sortzaile eta elkartekide arrunten ordezkari diren Zuzendaritza Batzordeko kideak dagozkien erakundeek eta enpresek proposatuko dizkio Elkartearen presidenteari, Batzar Nagusiak izenda ditzan.

Zuzendaritza Batzordea kide hauek osatzen dute: presidente, presidenteordea (bi gehienez), idazkaria eta diruzaina, eta batzordekideak, ez zortzi baino gutxiago ez hogeい baino gehiago.

Presidenteak edo Zuzendaritza Batzordeak eskumena dute aholkulariei deialdia egiteko, unean-unean, ez, hala ere, hiru baino gehiagori. Aholkulariek Zuzendaritza Batzordean parte hartu ahal izango dute, hala erabakiz gero, hitz egiteko eskubideaz baina bota emateko eskubiderik gabe, gai zehatz bati edo gehiagori buruz.

Presidenteak besterik erabaki ezean, idazkaria izango da Batzar Nagusiaren idazkari ere.

Zuzendaritza Batzordeko kideak izango dira, batzordekide gisa nahiz beste kargu baten arduradun direla:

- Eusko Jaurlaritzak izendatutako ordezkariak, bi gehienez.
- Bizkaiko Foru Aldundiak izendatutako ordezkariak, bi gehienez.

- Bilboko Hiribilduko Udalak izendatutako ordezkariak, bi gehienez.
- Eudel, Euskadiko Udalen Elkartea - Asociación de Municipios Vascos erakudeak izendatutako ordezkari bat.
- Esparru metropolitarraren jarduera edo eragin eremuko udalerrietako bi ordezkari.
- Elkartekide sortzaileen edo elkartekide arrunten ordezkariak, sei gutxienez.

Elkartearren zuzendari nagusiak Zuzendaritza Batzordearen bileretan parte hartu ahal izango du, besterik erabaki ezean, hitz egiteko eskubideaz baina botoa emateko eskubiderik gabe.

**28. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeari dagokio:**

- a).- Elkardea zuzendu eta administratzea, horretarako beharrezko jotzen dituen arauak ezarri.
- b).- Ondasunak eskuratzeari buruzko erabakiak hartzea, eta ondasun horien erabilera, besterentze eta zergapetzeari buruzko proposamenak egitea, Batzar Nagusiak ondasun higiezinak erabili eta besterentzeari buruz dituen eskumen esklusiboei kalterik egin gabe.
- c).- Elkartekide arruntak eta elkartekide laguntzaileak sartzeko eskaerak onartzea.
- d).- Elkartearren jarduerak, ondasunen edo zerbitzuen eta bulegoen erabilera arautuko dituzten arauak eta arautegiak promulgatzea.
- e).- Urteko Txostenaren idaztea, eta Balantzea eta Diru-sarreren eta Gastuen Aurrekontuak prestatzea.
- f).- Estatutu hauetan aurreikusi gabeko gaiak interpretatzea eta egoerak ebaaztea.
- g).- Elkarteko langileak izendatu eta kaleratzea, eta horien ordainsaria finkatzea.
- h).- Ahalordeak ematea, zehazten dituen ahalekin, bai eta era guztietako egintzak bideratzea ere, epaiketan zein epaiketatik kanpo, auzietarako behar diren botere orokorrak emanet.
- i).- Ohorezko elkartekideen izendapena proposatzea Batzar Nagusiari.
- j).- Zehaztea elkartekideek zer laguntza eman behar dioten Elkarteari.
- k).- Batzar Nagusiari proposatzea elkartekideak kanporatzea, estatutuak edo elkartekide gisa dituzten betebeharrik larriki urratzeagatik edo sozietae jarduerari eta helburuei ez laguntzeagatik.
- l).- Batzar Nagusiaren ohiko eta ezohiko bilkuretarako deialdia egitea.
- m).- Jaraunspen, legatu eta dohaintzak onartzea edo haiei uko egitea.
- n).- Batzar Nagusiak agintzen dion beste edozein eginkizun.

**29. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea urtean hirutan bilduko da, gutxienez, ohiko bilkuran.**

Bilkura horietako bat urteko lehen lauhilekoan egingo da, Urteko Kontuak eta Emaitzaren Aplikazio Proposamena formulatzeko, bai eta aurreko ekitaldiko aurrekontua likidatzeko ere.



Eta ohiko beste bilkuretako bat urteko azken hiruhilekoan egingo da, hurrengo ekitaldirako aurrekontua formulatzeko.

Batzordeak ezohiko bilkurak egin ahal izango ditu presidenteak hala eskatuta.

Zuzendaritza Batzordea ezohiko izaeraz biltzeko deialdia egin beharko du presidenteak, halaber, Batzordeko gutxienez lau kidek hala eskatzen dutenean, haien proposatzen duten gai zerrendarekin. Presidenteak eskumena izango du gai zerrendan gai gehiago sartzeko.

Presidenteak posta elektroniko bidez egingo ditu deialdiak, bilera baino gutxienez bost egun lehenago.

Zuzendaritza Batzordeetan aurrez aurre, bideokonferentziaz nahiz beste edozein komunikazio bide telematikoz parte hartu ahal izango da, baldin eta behar bezala bermatzen bada bilerako parte-hartzaileen identifikazioa, komunikazioaren jarraitutasuna, parte hartzeko eta bota emateko aukera, Batzarretan modu telematikoan parte hartzeari buruz estatutu hauetan aurreikusitakoa aplikatuta, mutatis mutandi.

Idatziz eta bilkura saiorik egin gabe hartutako erabakiak baliozkoak izango dira baldin eta Batzordeko inongo kidek horri kontra egiten ez badio.

Procedura hori erabiltzekotan, idazkariak jasotako azken gutun edo posta elektronikoarena izango da erabakiaren data; idazkariak idatziko du akta, presidentearen oniritziarekin.

**30. artikulua.-** Batzordearen erabakiak baliozkoak izan daitezen, beharrezkoa izango da bota eskubidea duten batzordekideen erdiak gehi bat egotea bileran, bertaratuta edo ordezkatuta.

Zuzendaritza Batzordeko edozein kidek utzi ahalko ditu bere ordezkaritza eta bota eskubidea beste edozein batzordekideren esku. Ordezkaritza hori ondorio guztiatarako baliozkoia izan dadin, Zuzendaritza Batzordearen bilkura bakotzerako aurkeztu beharko da, idatziz edo posta elektronikoz, sinadura aitortuarekin.

Batzordekide bakoitza bi ordezkaritza jaso ditzake gehienez ere.

**31. artikulua.-** Zuzendaritza Batzordearen erabakiak isilpeko bozketaz eta emandako botoen gehiengo osoz hartuko dira, ahobatzeko adostasunik ez bada.

**32. artikulua.-** Zuzendaritza Batzordearen erabakiak Akta Liburuan jaso beharko dira, presidenteak eta idazkariak sinatuta.

Akten laburpenak, kopiak edo egiaztagiriak frogatzen dira, betiere idazkariak baimendurik bidaude, presidentearen oniritziarekin.

**33. artikulua.-** Zuzendaritza Batzordeko kideen izendapenei bost urteko iraupena izango dute, eta iraupen bereko aldietarako berritu ahal izango dira karguak.

Batzarrak ahalmen askea izango du Zuzendaritza Batzordeko kideak kentzeko, ezeztatzeko edo estatutuetan ezarritako epean hurrenez hurren berraukeratzeko, noiznahi eta betiere.

Zuzendaritza Batzordeko kargudun izateari utziko diote, halaber, pertsona juridiko diren elkartekideak ordezkatzen dituzten pertsona fisikoek, batzordekide izendatzea ekarri zuen entitate elkartekideko kargua uztean.

**34. artikulua.-** Zuzendaritza Batzordeko kide izateko honako baldintza hauek bete beharko dituzte pertsona fisikoek eta pertsona juridikoak ordezkatzen dituztenek: adinez nagusia izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea eta indarrean dagoen legedian ezarritako bateraezintasun arrazoirik ez izatea. Zuzendaritza Batzordeko kide izatea konfiantzazko eta ohorezko kargua da.

Horrenbestez, haren titularrek doan beteko dute kargua, hala jarduteak inolako ordainsaririk ez dakarkiela. Dena den, eskubidea izango dute beren funtazioak betetzeak sortu eta behar bezala justifikatzen dituzten gastuen ordaina jasotzeko; edonola ere, kontzeptu horri dagozkion zenbatekoek ezin dituzte gainditu aplikagarri diren legezko arautegietan aurreikusitako mugak.

Zuzendaritza Batzordeko kideek ezingo dute erakundearen emaitza ekonomikoetan parte hartu, ez beren kabuz ez bitarteko beste pertsona edo erakunde baten bitarte ere.

Artikulu honetan ezarritako berdin aplikatuko zaie erakundea merkataritza sozietateetan ordezkatzen duten administrariei, non eta administrari izateagatik jasotzen dituzten ordainsariak ez diren itzultzen ordezkatzen duten erakundera.

**35. artikulua.-** Zuzendaritza Batzordeak Batzorde Betearazle bat osatu ahal izango du bere kideekin, eta haren esku utzi hala erabakitzen dituen ahalmenak.



Batzorde Betearazlea presidenteak gehi, gutxienez, Zuzendaritza Batzordeko kide bik edo, gehienez, bostek osatuko dute.

Batzorde Betearazlea izendatzeko, aldeko botoa eman beharko dute ahalmenak eskuordetzeko erabakia hartzen duen Zuzendaritza Batzordearen bilkuran parte hartzen duten guztietarik bi herenek.

Batzorde Beterazlea izendatzen denean zehaztuko da hark nola jardungo duen.

#### **ZUZENDARITZA BATZORDEKO PRESIDENTEARI BURUZ**

**36. artikulua.-** Presidentearen eskuduntzak dira:

- a).- Elkartearen sinadura eramatea eta epaiketan zein epaiketaz kanpo elkartearren ordezkari legezko eta instituzionala izatea, auzi jakinetarako ahalmenak emanez eta epaiketan aitorpena egiteko eskumena duela.
- b).- Batzar Nagusiaren eta Zuzendaritza Batzordearen erabakiak betearaztea.
- c).- Batzar Nagusiaren eta Zuzendaritza Batzordearen bileretarako deialdia egitea eta haien buru izatea, deliberazioak zuzentzea eta, oro har, saioen behar bezalako garapenerako beharrezko diren eskumenak gauzatzea.
- d).- Estatutu hauetan aurreikusten diren izendapenak egitea.
- e).- Elkartearen organoek zehazki esleitzen dizkioten funtzioak betetzea.
- f).- Idazkariarekin batera, Batzar Nagusiaren eta Zuzendaritza Batzordearen bileren aktak bere sinaduraz baimentzea.
- g).- Berdinketak kalitatezko botoarekin ebatzea.
- h).- Estatutu hauetatik eratorritako gainontzeko funtzioak.

#### **ZUZENDARITZA BATZORDEKO PRESIDENTORDEARI BURUZ**

**37. artikulua.-** Presidenteordearen edo presidenteordeen zeregina da presidentearekin lankidetzan aritzea hark agintzen dizkien gaietan, eta haren ordezkari gisa jardutea edozein arrazoirengatik hura ez dagoenean, ezin duenean edo gaixorik denean.

Presidentearen ordezko gisa presidenteordeak arituko dira, baldin eta bat baino gehiago eta gehienez bi badira, presidenteak ezarritako moduan, eta, halakorik ezean, errortazioz, adin handieneko presidenteordetik hasita.

Presidentea ordezkatzen duenean, haren eskubide eta ahalmen berberak izango ditu presidenteordeak.

Gainerakoan, haren botoek Zuzendaritza Batzordeko gainerako kideenaren balio bera izango dute.

Batzar Nagusiak aukerakoa du presidenteordea aukeratzea.

#### **ZUZENDARITZA BATZORDEKO IDAZKARIARI BURUZ**

**38. artikula.-** Idazkariaren funtziak dira:

- a).- Elkartearren Liburuak jagon eta zaintzea.
- b).- Batzar Nagusiaren eta Zuzendaritza Batzordearen bileren aktak egitea.
- c).- Elkartearren Liburueta agertzen diren erabaki eta datuei buruzko ziurtagiriak egitea, presidentearen edo presidenteordearen oniritziarekin.
- d).- Elkartekideen Erregistro Liburuaz arduratzea.
- f).- Zuzendaritza Batzordeak agintzen dizkion gainerako funtziak.

Agiri horien idazketa materialerako, aktetarako idazkari bat izenda daiteke.

Edozergatik idazkariaren postua hutsik badago edo idazkaria ez badago, presidenteak erabakitako batzordekideak beteko ditu hari dagozkion funtziak.

#### **ZUZENDARITZA BATZORDEKO DIRUZAINARI BURUZ**

**39. artikula.-** Diruzainaren funtziak dira:

- a).- Bere sinaduraz onestea kobrantzak eta ordainketak, ezartzen den zenbatekoan.
- b).- Elkartearren kontabilitatearen zuzendaritzaz arduratzea eta Kontabilitate Liburuak zaintzea.
- c).- Ordainagiriak eta gainerako antzeko dokumentuak negoziatu edo deskontatzea.  
Ahalmen hau Zuzendari Nagusiari eskuordetu daki, osotasunean edo kasu jakin batzuetarako.
- d).- Elkartearren kudeaketa ekonomikoa, bere osotasunean, Zuzendaritza Batzordeak ezarritako arauetako lotuta.

#### **ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDEI BURUZ**

**40. artikula.-** Batzordekideen funtziak dira:

Zuzendaritza Batzordeko kide gisa duten karguari (Elkartearren zuzendaritza eta kudeaketa arrunta) dagozkion ardurak izango dituzte, baita Zuzendaritza Batzordeak berak agintzen dizkienak ere.

## ZUZENDARI NAGUSIARI BURUZ

41. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeak zuzendari nagusia izenda dezake, egoki irizten dion guztietan. Batzordeak askatasuna izango du aurkezten diren zuzendarigaien artean egokien irizten diona aukeratzeko, hari dagozkion ahalmenak zehazteko, bai eta haren ordainsaria nahiz lanaren izaera finkatzeko ere.

Izendapenean besterik adierazi ezean, oinarrizko jarduera ildo hauek dagozkio zuzendari nagusiari:

- a).- Zuzendaritza Batzordeak onartutako erabakiak eta zuzentaraauak betearaztea.
- b).- Elkartearen zerbitzuak zuzentzea, haren xedeak hobeto erdiesteko beharrezko antolaketa funtzioko betez.
- c).- Proiektuak, azterketak eta zerbitzuak kontratatzea, Elkartearen helburuekin bat etorrita eta dagozkion arauak ezarritako baldintzetan.
- d).- Elkartek ekitaldi ekonomiko bakoitzean betetzeko ekintza programak prestatu, proposatu eta zuzentzea, haien onartuta daudela.
- e).- Dagokion ahalmenari egokiturik, Elkartearen instalazio, zerbitzu edo jarduera berriei buruzko proiektuak nahiz aurretikoak handiagotzeko edo zaharberritzeko proiektuak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztea, hark onar ditzan.
- f).- Dagokion ahalmenari egokiturik, egoki ikusten diren lankidetza, sorospen edo eskuratze kontratuak idaztea eta Zuzendaritza Batzordeari proposatzea.
- g).- Jarduera edo zerbitzu guztien Kontabilitate Orokorra eta Osagarria antolatzea, bai eta ordainketen eta kobrantzen mekanika ere.  
Ordainagiriak eta gainerako antzeko dokumentuak negoziatu eta deskontatu ahal izango ditu berariaz adierazitako mugen barruan.
- h).- Elkartarekin harremana duten pertsona guztien izendapenak eta ordainsariak, haienkin egin beharreko kontratu motak eta haien kanporatzea eta beren jardueraren lan izaeraren antolaketa proposatzea.
- i).- Ordainketak agintzea eta Elkartek banku, aurrezki kutxa edo bestelako kreditu erakundeetan dituen kontuak erabiltzea, berariaz ezartzen zaizkion mugen barruan, eta diruzainaren oniritziarekin, ezartzen diren kasuetan edo mugekin.
- j).- Elkartearen aurrekontu orokorrak eta edozein zerbitzu edo jarduerari buruzko aurrekontu bereziak prestatu eta Zuzendaritza Batzordeari aurkeztea.
- k).- Presidenteak eskuordetuta, Elkartearen ordezkari izatea epaketan edo epaketatik kanpo, bai eta edozein mailatako botere publiko, erakunde, korporazio eta pertsona juridiko edo naturalekin izan beharreko erlazioetan ere.

Zuzendari nagusiaren izendapenak iraupen mugagabea izango du, baina Zuzendaritza Batzordeak haren kargua etetea erabaki dezake, Estatutu hauetan aurreikusitakoarekin bat etorriz hartutako erabaki bidez.

Zuzendaritza nagusiaren titulararen postua hutsik badago, zuzendari nagusia ez badago edo gaixo badago, presidenteak edo Zuzendaritza Batzordeak xede horretarako izendatutako pertsonak beteko ditu hari esleitutako funtzoak, horrek inolako aldaketarik eragin gabe organoen arteko eskumen banaketan eta ordezkaritza horren berri argitaratzeko premiarik gabe.

## V. KAPITULUA.- URTEKO EKITALDIA ETA KONTABILITATEA

**42. artikulua.-** Ekitaldi ekonomikoa urtekoa izango da, eta urte naturalarekin bat etorriko da.

Elkartea bere jarduketen jakinean jarriko ditu administrazio publikoak, elkarreko interesaren eta lankidetzaren mesedetan.

Elkartearren gobernu organoetako kideen karguei ez dagokio inolako ordainsaririk.

**43. artikulua.-** Elkartea diru-sarrera eta gastu arruntak jasoko dituen aurrekontu arrunt bat prestatuko du ekitaldi ekonomiko bakoitzerako.

Ekitaldi ekonomiko bakoitzaren azken hiru hilabeteetan Zuzendaritza Batzordeak hurrengo ekitaldirako aurrekontua prestatuko du.

Orobat prestatuko ditu, ekitaldi ekonomiko bakoitzaren lehen lau hilabeteetan, aurreko ekitaldiari buruzko txostena eta urteko kontuak, kudeaketaren txostena eta aurrekontuaren likidazioa.

Urteko kontuekin batera aurkeztuko zaizkio horiek guztiak Batzar Nagusiari, hark onar ditzan.

## VI. KAPITULUA.- DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

**44. artikulua.-** Hauek dira Elkartea desegiteko arrazoia:

- a).- Elkartearren sorrera eragin zuten helburuak bete ezina.
- b).- Beste erakunde batean fusionatu edo sartzea, horrek Elkartearren izaera juridikoa galtzea dakarrenean.
- c).- Batzar Nagusiak 26. artikuluan aurreikusten den gehiengoaz hartutako erabakia.
- d).- Epaiketa bidezko erabaki irmoa.

**45. artikulua.-** Desegitea erabaki ondoren, likidazioari ekingo zaio. Horretarako, Zuzendaritza Batzordeak Likidazio Batzordearen funtzioa hartuko du bere gain; betiere, Batzar Nagusiak likidazioa egiteko pertsona edo pertsonak -beti kopuru bakoitian- izendatzeko duen gaitasunari kalterik egin gabe.

**46. artikulua.-** Desegitea erabaki ondoren, Elkarteak amaitutzat joko ditu bere ohiko jarduerak eta likidazio eragiketei hasiera emango die.

Likidatzaileek likidazioaren amaierako kontua eratuko dute, zor guztiak ordaindutakoan ateratzen den aktibo garbiaz.

**47. artikulua.-** Elkarte ondasunak likidatu ostean, Zuzendaritza Batzordeak Elkartearen ondasunen norakoa erabakiko du. Oso-osorik aplikatu beharko dira irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga erregimenari eta mezenasgoari emandako zerga pizgarriei buruzko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauaren 18.etik 26.era bitarteko artikuluetan (biak barne) jasotako ondorioetarako mezenasgoaren onuraduntzat hartutako erakundeetakoren batean edo interes orokorreko helburuak dituzten eta fundazio ez diren erakunde publikoetan.

## VII. KAPITULUA.- ZEHAPEN ARAUBIDEA

**48. artikulua.-** Zuzendaritza Batzordeak zigorra jarri ahal izango die elkartekideei, Batzar Nagusiaren edo Zuzendaritza Batzordearen erabakiak edo Estatutuak behin eta berriz urratzeagatik.

Zigorra izan daiteke eskubideak 15 egunetik hilabetera arte etenda izatetik hasi eta Elkartea behin betiko utzaraztera bitartekoak, hurrengo artikuluetan aurreikusitako terminoetan.

Horretarako, presidenteak ikerketa abiatzeko erabakia hartu ahal izango du, zigorgarriak izan daitezkeen jarrerak argitzeko. Jarduketa horiek idazkariak egingo ditu, organo instruktorea den aldetik, eta hark proposatuko dio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurriak hartzeko.

Zigorrak ezartzeko eskumena Zuzendaritza Batzordeari dagokio, idazkariak horretan esku hartu gabe (organo instruktorea delako), eta, zigorra jarri baino lehen, interesdunari entzun beharko zaio. Zigorra ezartzeko erabakia beti izango da arrazoitua, eta errekursoa jarri ahal izango da haren kontra Batzar Nagusiaren aurrean.

**49. artikulua.-** Elkartekideren batek Elkarteak utzarazteko modukoa izan daitekeen zerbait egin badu, ustez, Batzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakietatik edo Estatutu hauetatik eratorritako betebeharrik modu larri, jarraitu eta berariazkoan urratzeagatik, presidenteak idazkaritzari agindu ahal izango dio aldez aurreko izapideak egiteko, beharrezko informazioa lortzearren, eta, horrela, presidenteak aukera izango du jarduketak artxibatzeko edo Elkarteak utzarazteko zigor espedientea abiarazteko.

**50. artikulua.-** Elkarteak utzarazteko zigor espedientea abiaraziz gero, idazkariak, gertakariak egiaztatu ostean, idazki bat bidaliko dio interesdunari, egozten zaizkion karguen berri emanet. Interesdunak hamabost eguneko epea izango du bere buruaren defentsan egoki irizten diona alegatzeko. Hamabost egun horiek igarota, edonola ere, auzi hau Zuzendaritza Batzordearen hurrengo saioko gai-zerrendan sartuko da, eta Zuzendaritza Batzordeak hartuko du dagokion erabakia, idazkariaren botorik gabe, espedientearen instruktore gisa jardungo baitu.

Elkartea utzarazteari buruzko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, eta adieraziko zaio egiten den hurrengo Ezohiko Batzar Nagusian errekursoa aurkeztu ahal izango duela erabaki horren aurka; Ezohiko Batzar Nagusirako deialdirik hiru hilabeteko epearen barruan egiten ez bada, beren-beregi egin beharko da ondorio horietarako. Bien bitartean, erruztatutako pertsonak elkartekide gisa dituen eskubideak bertan behera uztea erabaki ahal izango du Zuzendaritza Batzordeak, eta, Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargua uztea agindu beharko du.

Elkartea utzarazteari buruzko espedientea Batzar Nagusira eramatzen bada, idazkariak espedientearen laburpena idatziko du, erruztatutako pertsonak aurkeztutako idazkiaren berri eta gertakarien gaineko informazio egokia eman diezaion Zuzendaritza Batzordeak Batzar Nagusiari, Batzarrak dagokion erabakia hartzeko.

**51. artikulua.-** Elkarteak utzarazteari buruzko erabakia beti izango da arrazoitua, eta pertsona interesdunari jakinarazi beharko zaio. Interesdunak, dagokion eskubidea gauzatzuz, Epaitegietara jo ahal izango du, iritziz gero erabakia Legearen edo Estatutuen aurkakoa dela.

**52. artikulua.-** Elkartekide bati jakinarazten zaionean Elkarteak utzi duela (bere borondatez edo zigorraren ondorioz), Elkartearekin bete gabe dituen obligazioak betetzeko eskatuko zaio, hala dagokionean.

### VIII. KAPITULUA.- ESTATUTUEN ALDAKETEI BURUZ

**53. artikulua.-** Estatutuen aldaketa xede horretarako berariaz deitutako elkartekideen Ezohiko Batzar Nagusian erabaki beharko da. Zuzendaritza Batzordeak hiru elkartekidez osatutako Batzorde Txostengilea izendatuko du, aldaketa projektua idatz dezan, hark emandako irizpideen arabera. Zuzendaritza Batzordeak adieraziko du proiektuak noizko egon beharko duen amaituta.

**54. artikulua.-** Aldaketa projektua adierazitako epean idatzi ondoren, egiten den hurrengo Zuzendaritza Batzordeko gai zerrendan sartuko du presidenteak, eta Zuzendaritza Batzordeak onartu egingo du, edo, bestela, Batzorde Txostengileari itzuliko dio, berriro aztertzeko.

Aldaketa onartuz gero, egiten den hurrengo Batzar Nagusiko gai zerrendan sartzea erabakiko du Zuzendaritza Batzordeak, edo, bestela, xede horretarako berariaz deituko du Batzar Nagusiaren bilkura.

**55. artikulua.-** Batzarrerako deialdiari atxikiko zaio Estatutuak aldatzeko testua, elkartekideek egoki irizten dieten zuzenketak bidal ditzaten Idazkaritzara. Zuzenketa horien berri Batzar Nagusiari emango zaio, baldin eta saioa egin baino zortzi egun lehenago eskuratzen baditu Idazkaritzak.

Zuzenketa modu indibidualean nahiz kolektiboan formulatu ahal izango dira, idatziz, eta, ordezko testua adierazi beharko da zuzenketetan. Zuzenketa gaineko bozketa egin ostean, Batzar Nagusiak Estatutuak aldatzeko erabakia onartuko du, eta Elkarteen Erregistro Nagusian inskribatzen denetik aurrera izango ditu erabaki horrek hirugarrenetik ondorioak.



José Antonio Garrido Martínez  
PRESIDENTE



Izaskun Artetxe García  
SECRETARIA GENERAL



B I L B A O  
*Metropoli-30*

